



## 'Soinuen Begiradak', Saroberen XXV. urteurreneko herri ikuskizuna

Musikariak eta dantzariak prestaketa lanetan murgilduta daude. Bi saio eskainiko dituzte datorren azaroaren 30ean. 2/3

## Ezberdinen arteko bilkurak bi herrietan

Bizilagunak egitasmoaren edizio berria egin zuten Andoainen, joan zen igandean. Kulturarteko jaia ospatu zuten Urnietan, bezperan / 7, 10



**Adarrazpi baserrira antolatutako bisitaldi gidatuek bisitarien arreta handia bereganatu dute** / 11



**Nora Mendizabal Andoaingo Gazteleku pilota elkarteko pilotariari elkarrizketa** / 13



**Egitarau oparoa Andoainen, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunaren harira** / 8-9





Ubillos, Jauregi, Agirregomezkorta eta Muruamendiaraz azaroaren 16an entsegu orokorra egiteko elkartu zirenean. AIURRI

# Ikuskizun berria, Urnietatik Urnietara

Urnietari eta urnietarrei buruzko ikuspegi estetiko eta majikoa uztartu nahi ditu 'Soinuen Begiradak' ikuskizunak. Bi emanaldi eskainiko dituzte Saroben, datorren azaroaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan eta 19:30ean

## Xabier Lasa URNIETA

Txanbolin txistulari bandak, Anabas musika taldeak eta Ega-pe dantza taldeak antolatu dute ikuskizuna, herriko hainbat kultur eragileekin batera.

'Soinuen Begiradak'-en lehen hazia noiz erein zen jakite aldera, Antton Jauregi, Mikel Agirregomezkorta eta Xabier Ubillosengana jo behar da derigor. Jauregik azaldu du ikuskizunaren jatorria. "Orain hiru bat urte bildu ginen; gure gogo handiena aurreko urtetan antzerkigintzarekin ireki zen bi-

dearen arrastotik jarraitu nahia zen. Atzera joanda, *Marizulo, Urnieta '59* edo *1936* ikuskizun haie-tan Urnietaren historia kontatzea izan zen asmoa. Gure aldetik, pauso bat harago eman nahi genuen. Urnietak dauzkan zenbait altxor, aintzinako elemen-

**URNIETAK BERE  
BAITAN GORDETZEN  
DITUEN ALTXORRAK  
IRUDIKATU NAHI  
DITUZTE**

tu eta tokiekin (Aierdi edo Ber-rasoeta baserriak, Munisko Gaina, Eteneta, Buruntza, Marizulo...) jolastu nahi genuen, horiekin kontakizun estetiko eta majiko bat azaleratuz. Izan ere, horietako asko nahiko ezezagun egiten zaizkio urnietar ugariri".

Bultzatzaileak Urnietako uni-bertso paisajistikoa osatzen duten makina bat pieza enblematiko joan ziren bereganatzen, azkenean ordu beteko iraupe-neko emanaldia definitzeko. Osagai guztiak nola eszenaratu

pentsatzen hasita, eguzkiarekin gogoratu ziren; hots, eguzkia izatea gidari, osagaiak logika eszeniko baten arabera funtzio-na dezaten. Era horretan, eguzkia agertzen denetik sartzen den bitarte egiten duen ibilbideari jarraituko dio hariak.

Jon Unanue izan du gidoilari ikuskizunak; Mikel Agirregomezkorta antzerkigileak, berriz, jostun lanak egin ditu muntaia guztian, ikuskizuna osatzen duten elementu guztiak jendaurrean

**IRAGANEKO HERRI  
IKUSKIZUN EDER  
HAIEN ARRASTOTIK  
JARRAITU NAHI  
IZAN DUTE**

orden batekin aurkez daitezen. Antzerkilaririk gabeko ikuskizuna da 'Soinuen Begiradak', eta offen entzungo den ahotsak kontalari gisa jardungo du. Aner Unanuek irudiaren arloa hartu du bere gain; dron baten hegaldiaz baliatuta Urnietako hainbat paraje eta txokoren irudiak jaso ditu.

## Zenbait sortzaileekin keinuka

Ikuskizunean zehar Urnietako leku eta elementuek protagonismo nagusia hartzen badute ere, argitan jarri nahi dira urnietar askorentzat nahiko ezkutuan jarraitzen duten herriko zenbait kultur gile; horien artean legoke, esate batera, Iñaki Alkain bertsolaria. Bestalde, iraganeko beste zenbait idazle eta sortzaileei ere keinu txikiak egingo zaizkie ikuskizunean zehar: Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Joxean Artze, Mario Benedetti, *Ernani Txiki*... Hernaniko bertsolari hori bereziki hartuko da gogoan, berak 1975ean Adarrako ardi bordari eskaini zion bertso sortaren eskutik.

## Auzolana

Urnietan, urnietarrek urnietarrentzat egingo duten kultur sorkuntza honetarako, auzolanaren filosofiari heldu diote, Jauregik zehaztu duenez: "Herriko kultur eragileak zikiratzea eta elkarlanean jartzea nahi izan dugu, eta hein batean, lortu dugula esango genuke. Izan ere, sortzaile ugari dago Urnietan nor bere arloan dabilena, eta egitasmo erakargarri batez ukituz gero, agudo animatzen dira beren ekarpenak egiteko. Ahots ederra daukan Ana Pozas izan daiteke horietako bat. Bestalde, Kristina Solano eta Xabier Leturiak bat egin dute emankizunarekin".

Ubillosek gaineratu duenez, "azken batean hazia jartzea da kontua, bidea irekitzea, gero etor daitezen gazteak atzetik euren irudimena eta sormena lantzerantz eta erakustera. Urnietan bada gazte jendea musikaria, baina gero gutxi agertzen da jendaurrean. Horiek ere gustura asko promozionatu nahi gennituzke".

## Abesti sortaren estreinaldia

Sorkuntza etengabekoa izan da ikuskizunaren lanketa prozesuan, eta horren isla da okasiorako sortu duten kantutegia, ez no-

## Sarrerren salmenta

Datorren astelehenean, azaroak 25 emanaldia ikusteko sarrerak, salgai jarriko dituzte. Goizeko 09:00tan hasita, Sarobeko leihatilan eskuratu ahal izango dira.

Bi saio iragarri badituzte ere, soilik bigarren saiorako sarrerak erosteko aukera izango da.

- 18:00tako saiora gonbidapenarekin bakarrik sartu ahal izango da.
- 19:30eko saiorako sarrera bakoitza 5 eurota salduko da.

lanahikoa, bederatzi kantuez osatutakoa baizik: *Eteneta, Muniskue, Sanson, Aierdi, Herria-Mari, Nire herria, Idiazabal Zaldundegi, Berrasoeta* eta *Buruntza* dira abesti horiek. “Bilakaera bultzatu dugu musikaren arloan. Urnietan iraganean eszenaratutako ikuskizunetan aurretik eginda zeuden kantak hautatzera eta horien bertsioak egitera mugatu ginen. Oraingoan, ordea, geuk sortzea deliberatu dugu”, Ubillosen hitzetan.

Jon Garmendia *Txuria* da abesti askoren hitzen egilea. Jauregiren ustez kazetari horixe izango da Urnietako ikusleek deskubrituko duten egileetako bat: “180 abestien letrak sortu ditu mutilak Berri Txarrak, Xabi

Solano eta beste musikagileen-tzat, baina oso jende gutxi ezagutzen du bere sortzailearen fazeta hori”.

### Dantza berriak eszenatokira

Dantzagintzan egundoko maila dago Urnietan, eta bultzatzaileek pribilegio horrekin jokatu dute emankizunari ikusgarritasun estetikoak itsasteko. Aktorerik gabeko ikuskizuna da ‘Soinuen Begiradak’, eta denbora osoan zehar dantzariak eta euren gorputzen espresiotik irteten diren dantza saio desberdinek beteko dute taulagaina.

Hain zuzen, Egape dantza taldeko dantzariak dabilta entseguetan buru belarri, Edu Murumendiarazen esanetara. Zuzendaritza ez ezik, abesti sortu berriei dantzaz jazteko ardura hartu du Murumendiarazek. “Orain urtebete aipatu zigun Antton Jauregik nola zebilkiten ideia burutan. Agindu zigutenez eurek sortuko zituzten abestiak Urnietako leku bereziekin zerkusia izango zutenak, eta galdetzen ziguten ea prest geundeen koreografia eransteko. Egitasmoa erakargarria egin zitzaigun hasiera-hasieratik, eta gure ekarpena egin nahian murgildu izan gara azken hilabeteetan. Ez da langintza erraza izan, kontuan hartu behar baitugu doinu bakoitzaren atzean Urnietako gai eta toki jakinak daudela; horrexegatik, dokumentazio lana egin behar izan dugu asko, doinu eta historia bakoitzari dantza erritmo bat diseinatu. Era horretan, hamaika dantza saio sortu ditugu, ikuskizunean txertatzeko eta bata bestearen atzetik erakus-

teko. Hamazazpi dantzari taularatuko dira horiek denak interpretatzeko Ez dakit koreografiarekin asmatu dugun ala ez, baina ikusleen gogokoa izatea espero dut”.

### Segidarik gabeko ikuskizuna

Hainbat partaideen ahalegin itzelari esker, jendaurrean bi txandatan taularatu ostean, hortxe bukatuko da ‘Soinuen Begiradak’ ikuskizunaren abentura. Eta mingarria egiten zaie pitin bat errealitate hori, bultzatzaileei. Gauzak ondo egin izanaren sentimenduarekin batera, ezin baitute ezkutatu frustrazio txikiren bat ere geratuko zaiela. “Maiz hitz egin izan dugu inguruko herriek beharko luketela sinatu hitzarmenen bat elkarrekin. Herriren batean bertako nortasuna islatzen duen dimentsio handiko sormen-lan bat ekoizten den aldiro, beste herriei eskaintzeko aukera egon dadin. Aspaldiko aldarrikapena da hori, iruditzen zaigulako lagungarria izan daitekeela Lasarte, Andoain Hernani edo Urnieta bezalako herrietako herritarren artean harremanak sendotzeko. Baina ez dirudi erabakiak hartzeko gaitasuna daukatenek horren inguruan kontzientzia hartu dutenik”.

Atsekabeak atsekabe, ‘Soinuen Begiradak’ ikuskizunak Urnietako herriari kultur ondare aberatsa utziko dio etorkizunean, Jauregik gogoratu duen bezala. “Musika, dantza eta irudia, hiru esparru horietan sorkuntzak eman ditu bere fruituak, Urnietako jendeak hartu du protagonismoa prozesu horretan, eta hori betirako geratuko da”.



## Erakusketa zabalik Saroben

Sarobera gerturatzeko ohitura duen herritarrak ezustea hartuko du, atea zabaldu orduko. Aurrez aurre hiri handietako metroetan agertzen den mapa modukoa topatuko du. Zazpi ibilbide dira, bakoitza bere kolorearekin. Lurrean ibilbide bakoitzari dagokion lerroa topa daiteke, eta bisitaria bati eta besteari jarraituz Sarobe arte eszenikoen guneko toki ezberdinetara iritsiko da.

### Hasiera

Egun ezagutzen dugunaren aurretik, Elizondo zinema izan zen. Eta instalakuntza haiek zinema eskolarako baliatu zituzten, aspaldian. Gerora, zinemaren azpiegituraren gainean Sarobe arte eszenikoen gunea altxa zuten. Eraikuntza lanetarako planoak ikusgai daude.

### Herriko ekoizpenak

Marizulo, Urnieta 59 eta 1936 ikuskizunen argazki-bilduma aurki daiteke bertan.

### Atrezkoa

Sarobe antzokiaren azpialdean antzezlari ezberdinetan erabilitako materiala ikus daiteke. Ikusgarriena, beharbada, El flodiko pensil antzezlariaren pupitre sorta da.

### Jantzigintza

Antzezlari ezberdinetan eta Aukeran dantza taldean erabilitako hainbat jantzi ikusgarri ikusgai ipini dituzte.

### Zinema aretoa

Zinema eskola bertan izan zen, eta garai hartako filmak eta argazkiak ikus daitezke.

### Estreinaldiak

300 ekoizpen sortu dira Saroben, eta antzezlari ezagunen kartelak eskegita daude.

### Sarobe kontzertuak

Zikloaren baitan talde ezagun ugari hurbildu zen kontzertua eskaintzera. Kartelak eta sarrerak ikusgai daude.



Azaroaren 16an lehen entsegu orokorra egin zuten Sarobe Arte Eszenikoen Gunean. AIURRI





POSTONTZIA

SARE BETERRI-BURUNTZA

## Larriki dauden presoak etxera



Eskualdeko ekimenaren aurkezpena Lasarte-Orian egin zuten. NOAUA

Egun 21 dira larriki gaixo diren euskal presoak. Preso hauek pairatzen duten gaitzari ezohikoa den espetxe politika baten baitan egin behar diote aurre, espetxeak berak osasunaren zaintzari dagokionean sortzen dituen zailtasunei, bestelako batzuk gehituz. Tartean, gaixotasunaren jarraipena egiteko konfiantzazko medikurik ez izatea edota, lege arruntak jasotzen duen moduan, gaixotasunaren larritasunaren aurrean, etxean artatua izateko eskubidea ukatua izatea.

-Euskal presoei ezartzen zaien salbuespenezko espetxe-politika: isolamendua, zigorraren luzapena eta urruntze-politikak preso dagoen pertsonaren osasunean eragin zuzena dute, ezegonkortasuna, arazo psikologikoak, antsietatea, harremanak garatzeko arazoak... sortzen ditu.

-Gaixo diren presoen kasuan gainera, gaixotasunari aurre egiteko aukerak murrizten ditu, gertuko babesa, bizi baldintza duinak edota konfiantzazko medikuen jarraipena ez izateak eragin zuzena baitu.

- Espetxeetako osasun-baldintza kaxkarrak: espetxeak berak instituzio gisa, hala nola zentroak

(masifikatuak, birus eta izurriteen zabalpenerako aproposak, zikinkeria pilatzen den gunea), medikuen jarrerak eta baliabide faltak, osasunean eragin negatiboa izaten dute.

- Espetxeek ez dute behar bezalako osasun-zerbitzua emateko aukerarik eskaintzen. Osasuna pertsona guztiei dagokien eskubidea da, baita preso diren pertsonen ere.
- Ezin dugu segurtasun politiken aitzakia pean presoen oinarritzko eskubideak zapaltzen dituen politikarik onartu. Preso orok konfiantzazko mediku edo psikologo baten laguntza jasotzeko eskubidea du.
- Salbuespen politika hau desagertzen ez den bitartean larriki gaixo diren presoak heriotzara kondenatuak izaten ari dira.

Horren erakusle da, orain artean preso hauen etxeratzea soilik gaixotasunak atzera bueltarik ez duenean eta sendaezina denean gauzatu izana. Horregatik, dei egiten dizuegu salbuespenezko espetxe-politika honekin amaitzeko aldarriarekin bat egitera; espetxea ere gure gizartearen zati izanik, guztion ardura baita larriki gaixo diren presoek bizi duten muturreko egoera aldatzea.



IRITZIA

GAUR GEROA EUSKAL HERRIKO PENTSIONISTEN ELKARTEA

## Jo ta ke irabazi arte

Euskal Herriko pentsionisten elkarteak, Gaur Geroak Araba-Bizkaia-Gipuzkoa eta Nafarroan hurrengo hilabeteetan izango diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten du, kaleak berriro betetzeko: Azaroaren 16an Bilbo-Donostia-Gasteiz eta Iruñean manifestazio erraldoietan, Abenduaren 12an EAE eta Nafarroako Legebiltzarrean, eta urtarrilean mobilizazio eta Greba orokorrean.

Bi urte joan dira jadanik asteroko elkarretaratzeekin eta argi daukagu gure agintariak mobilizazioekin bakarrik ohartzen direla gure egoeraz.

2018an pentsioak %0,25 baino gehiago igotzea lortu genuen, baita faktore jasangarria atzeratzea, pentsio minimoak eta alarguntasunena hobetzea eta SMI delakoa 900 eurora igotzea.

Bukatugabeko lorpena eta, oraindik gaur egun, betegabe daude zenbait erabakiz, oraindik ere garantiarik gabe jarraitzen dute pentsioek pentsio sistema publikoan.

Joan-etorrian ari dira Gobernu eta hauteskundeak, baina erabakiak hartu barik, pentsioen erreformak zein lan erreformak indarrean daude eta murrizketek aurrera jarraitzen dute, gure belaunaldia eta hurrengoak bizi baldintza

gogor eta zailagoetara kondenatuz.

Ez dugu nahi geuri arrazoia ematea, ezta zoriontzea gure mobilizazioengatik; Euskal Herriko pentsionisten Mugimenduarekin batera, neurriak nahi ditugu, epeka, eta gure eskaerak gauzatzeko baliabideak.

Pertsona nagusiek eta pentsiodunen beharrek ezin dituzte atzerapenik jasan, ezta Madrilgo giza elkarrizketa edota Toledoko Ituneko saio gehiagorik, hain zuzen horiek izan dira-eta pentsio-sistema publikoa txarragora eta pribatizatzea bideratu dutenak.

Horregatik pausu bat aurrerago emango dugu: bi urteren ondoren presioa indartzea erabaki dugu eta beste jendarte taldeekin indarrak lotuko ditugu (gazteak, emakumeak, langileak, autonomoak...), guztion arazoen jatorria bera da-eta; ez dago pentsio duina, soldata duin barik; ez dago berdintasunik, jendartearen %50 diskriminatuta badago, eta, azkenik, ez dago demokraziarik aberastasun banaketa orekaturik gabe.

Pentsionisten borroka ez da denbora-pasa, irabazteko apustua baizik. Bere eskaerak geureganatzen ditugu eta behingoan ondokoa exijitzen dugu:

- Pentsio eta soldaten eros-ahalmena berreskuratzea eta automatikoki urteroko birbalaratzea legez, kopiaren arabera gutxienez.
- Gutxiengo pentsioa 1.080 euro. Eta lanbide arteko gutxiengoko soldata (lgs) 1.200 euro, europar gutun soziala betetzeko.
- 2010 eta 2012ko lan erreformak deuseztatzea, baita 2011-2013ko pentsio erreformen atzerazko neurriak ere.
- Emakumeen kalterako diren soldata eta pentsioen arrakalaz bukatzea.
- 40 Urte kotizatu ondorengo pentsio aurreratuen penalizazio desagertzea.
- Diru publikoez giza-osasun arloko zerbitzuen sare publikoa garatzea; diru publikoez giza-osasun arloko zerbitzuen sare publikoa garatzea.

Pentsioak ezin dira izan hauteskunde-merkatugaiak; EAE eta Nafarroako, baita Estatuako instituzioek bizi-baldintza duinak, pentsioak eta langileen soldatak bermatzea exijitzen diegu.

Espainiako estatuak eta aberatsen alde gobernatzen dutenak Pentsio-sistema publikoa suntsitzen ari dira; Estatuak aberastasuna biltzen du gutxi batzuen eskuetan, bere herri eta pertsonen bizi-baldintzen kalterako.

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

**Aiurri eskuragarri:**  
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema.  
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.  
Umieta, 31 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea.  
20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.  
**Maketatzailea:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetza:** Garbiñe Ugarteandia.  
idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaileak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Umieta).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ**  
 ALJATUAK: **INSTRUX**  
 TOKIKOM  
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:  
 ANDOAINGO UDALA  
 Umieta udala  
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:  
 EUSKO JAIERAREN ARGITALPENEA  
 GIPUZKOAKO Foru Aldundia  
 Hilekita Berlinguasmerako Zuzendaritza  
 ZIURTAGIA: **Bitkain**  
 BABESLEAK:  
 Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



HEMEROTEKA

BERNARDO ATXAGA IDAZLEA

Txalaparta eta heriotza

Garai bateko kanposantua, Andoainen, elizaren muinoan bertan zegoen, eta hantxe eman zioten lurra 1969. urtean Rikardo Arregi gazteari. Bazihoan zeremonia bukatzera, eta, bat batean, Belkoain mendiko baso barrutik sortuta bezala, egurrak egurra jotzean egiten duen soinu zerrenda iritsi zitzaigun belarrietara. Batzuetan, estutu egiten ziren zerrenda hartako tartear; bestetan, zabaldu: estutzen zirenean, zaldi hotsa entzun ahal zen; zabaltzen zirenean, norbait ari zela deika iruditzen zitzaigun, eta halako molde bereziz non, hilobi ingurutik mugitu gabe, urruneko paisaje batean sentiarazten gintuen, edota beste denbora batean. Joaldi hark amaiera eman zion hileta gogoangarriari, zeinetan, ahots urratuz, Gabriel Arestik "tximeleten" poema ederra irakurri baitzuen, eta denok etxeratu ginen zeremonia bukaera hartan bekokia zipriztindu izan baligute bezala; ez hausterrarekin, aldiari zegokionez, baizik eta ipuinetako amandreek umeeekin erabiltzen dituzten

zilar edo urre izpiekin. Geroago etorri ziren albisteak: egur soinua zeukan tresnari «txalaparta» esaten zitzaiola, eta Artze anaiak izan zirela taumaturgoak, heriotza hurbilaren zama arindu eta, elizan eskatu bezala, bihotzak goraka jarri zituztenak. Txalapartak bide luzea egingo zuen hurrengo urteetan. Andoaingo kanposantuan azaldu eta handik oso gutxira, aparteko garrantzia hartu zuen Ez dok Amairu taldearen ikuskizunetan; segidan, abangoardiako musikaz arduratzen zen Italiako argitaletxe baten onspena lortu zuen; aldi berean, bere sortaldi berria ziurtatzen zuen «erretratoa» egin zion Remigio Mendiburu eskultoreak, eta Bilboko Arte Ederretako museoan kokatu zuen, kubistek pintatutako gitarra eta arrabiten ondoan. Gerora ere, fortunak ez zion bizkarrik eman: tresna ezaguna eta erabilia bihurtu zen Euskal Herri osoan. Perkusioaren alorrekoa izanik, txalapartak bazuen, noski, beste soinuekin nahasteko

berezko dohainik, baina bere ibilera oso desberdina izango zen artzetarrak izan ez balira; ez balute izan, bi anaiak, Rikardo Arregiren hileta egunean erakutsitako fedea eta gogoia. Beraiek aldatu zuten txalaparta tokiz, beraiek kokatu zuten beste adierazpen sistema batean; beraiekin bete zen tradizio esanguratsuaren lelo nagusia: "Sar dadila ardo berria zahagi zaharretan". Labur, poesia berezi bat erantsi zioten tresnari; metafisikoa, neurri handi batean. Hamaika aldiz ikusi genituen artzetarrak jotzen. Bat iheska; bestea harrapaka; bat alde, bestea aurka; bat dantzan; bestea, tinko. Batzuetan, biak bateratuz, oihal mehe bat osatzen zuten soinu zerrendarekin, eta bazirudien orduan uda betea zela eta erreka bazter batean zapoak kantuka eta abistuka ari zirela; lokartuta gelditzen ginen oihal hartan bilduta, zapokumeak berak bezala agian, eta ez ginen mugitzen harik eta kolpe ozen batek esnatzen gintuen arte.

Hil da Artzetarren anaia gazteena. Berari lurra eman behar zioten larunbat arratsalde berberean, bagenbiltzan lagun batzuk Arabako herrixka batean barrena eta bospasei gaztetxo ikusi genituen estalpe batean bilduta. Adineko beste pertsona gutxi batzuk ere bazeuden inguruan. Eguna hotza zen, zerua goibel zegoen. Hotzagoa eta goibelagoa iruditzen zitzaigun gainera guri, albiste txarra jakinda. Bat batean, Rikardo Arregiren hileta hartan bezain ustekabean, egurrak egurra jotzean egiten duen soinu zerrenda zabaldu zen gure inguruan. Estalpeko gaztetxoak, Jexux Artze ezagutu ere egiten ez zutenak, baina haren ondorengoak ezinbestean, txalaparta jotzen ari ziren. Egun goibel eta hotz hura argitu egin zen apur bat: airean, hausterrarekin nahastuz, hausterraren aurka, zilar eta urre izpiak zebiltzan orain, ipuinetako amandreek umeeekin erabiltzen dituzten berberak.

\* 2002ko maiatzaren 3an zendu zen Jexux Artze. Argian Atxagak gogoan hartu zuen, Andoaingo pasartea gogora ekarritz.

HAU ERE BADUGU!

Luis Angel Orteren heriotza



Joan zen ostiralean haren heriotzaren berri eman zen, eta tolosarra bazen ere, albisteak eragin handia izan zuen Andoainen. izan ere, Federopticos Orte dendako jabea izateaz gain Salkin merkatarien elkarteko lehendakaria izan zen. Duela gutxi arte, gainera. Herriko merkataritza sustatu asmoz, ekimen ezberdinetan jardun zuen, buru-belarri. 55 urte zituela hil zen.

Kontzertua atzeratu egin dute



Aurrera Gure Ametsa dantza taldearen sustatzaile nagusi izandako Alazne Maneroren omenezko kontzertua bertan behera geratu zen, musikari batek lesioa izan zuelako. Emanaldia beste data batean egingo dute. San Miguel elizan aritzekoak ziren Bittor Carrera, Ana Belen Garcia eta Haritz Ezeiza musikariak. Eta, nola ez, baita dantzariak ere.

Euskarazko produktuen katalogoa

Eguberrien atarian, euskarazko produktuen katalogoa argitaratu dute. Han hemenka paperezko edizioa topa badaiteke ere, eskura dago Katalogoa.eus webgunean ere.

GORA ETA BEHERA



Eteneta eta San Juan plaza elkar lotzeko igogailua

Astearte goizean garabi handi bat ipini zuten Eteneta aldean, bertatik igogailu berriko azpiegitura metalikoa jartzen hasteko. Piskanaka aurrera doaz eraikitze lanak. Mugikortasunari dagokionez, Urnietako gaikaldea eta Idiazabal kalea elkar lotzea abantaila handia izango da urnietar askorentzat.







Arantxa Iraola, Fermin Ezkieta idazlea eta Nerea Bueno Bastero Kulturgunean. AIURRI

## Ezka bako ihesalditik GR-225 ibilbidea osatu dute

Ezkietak ihesaldia eta mendi ibilbidea uztartu zituen, eta Oroituze herrikide presoehen xehetasunak eskaini zituen

### Erredakzioa ANDOAIN

Fermin Ezkieta nafarrak "Los fugados del fuerte de Ezkaba" liburua aurkeztu zuen Basteron, joan den ostiralean. Euskalduna mendigoizale taldeak gonbidatuta, bi zatitan banatu zuen bere hitzaldia. Batetik, 1938ko maiatzean, Ezkabako gotorlekuko 798 preso burutu zuten ihesaldia deskribatu zuen; soilik hiru preso lortu zuten Iparraldera (Urepel) iristea; gainerakoak bidean atzeman zituzten, eta horietatik 206 bertan erail eta

lurperatu. Azketaren hitzetan, "Europar, inoiz presoek kartzela batean burututako ihesaldirik jendetsuena izan arren, histori hori ezkutatu egin zaigu". Hitzaldiaren bigarren zatian hiru preso haiek egin zuten bidea biziberrituz berriki osatu duten GR-225 izeneko 54 kilometroko mendi ibilbidea izan zuen hizpide. Lau etapatan egiteko txukundu eta seinalizatu dute ibilbidea, eta Euskaldunako mendizaleak horixe ari diraosatzen azken asteetan.



Ugartemendia eta Karrera, Euskaldunako egoitzan. AIURRI

## "Iker.Mendia.Etxea" hitzaldia

Joan den udan mendi lasterketa profesionalak alde batera utzi zituen. Andoain amezketarrak ordura arte egindako ibilbide arrakastatsua hizpide izan zuen. Historio gozoak eta gaziak tartekatu zituen.

# Memoriaren eguna Andoain

"Ideien aniztasunean, printzipio demokratikoetan eta giza-eskubideen defentsan oinarritutako memoria inklusibo batekiko konpromisoa" berretsi dute Andoaingo Udal ordezkariak, Memoriaren egunean egin zuten adierazpenean

### Erredakzioa ANDOAIN

Azaroaren 14an EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos lau alderdietako zinegotziek adierazpen bateratua egin zuten. Andoaingo Udaletxeko pleno aretoan elkartuta, Udal ordezkariak herritarrei honako eskaera luzatu zieten: "Ez dezatela iragana ahaztu, ezta gure gizarteak orokorrean eta modu zehatzean biktimek, jasan zuten min eta sufrimendu bidegabeak izan zituen ondorio lazgarriak ere".

Iazko abenduan aurkeztu zuten "Memoria partekatu baterantz. Andoain 1956tik 2018ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketen eta indarkeria ekintzen txostena" gogora ekarri zuten, Maider Lainez alkateak irakurri zuen adierazpenean. idatzian hiru puntu nabarmentzen dira:

- "Indarkeria eta giza-eskubideen urraketa guztien gaitzespenetik abiatuta, memoriak, biktime guztien errekonozimendua, erparazioa eta ez errepikatzearen bermea sustatu behar ditu".
- "Andoain memoria politikan lan egiten eta sakontzen jarraitzeko gure borondatea eta konpromisoa berresten dugu, txostenak agerian jarri zituen errealitate guztietan sakondu eta hauen transmisioa



Adierazpen bateratua egin zuten ordezkariak duten alderdi guztiek. AIURRI

bideratzeko, irakurketa kritikoa ahalbidetuko duen kargu hartzea, eta biktime erparazioan aurrera egin ahalizateko. Gure memoria lantzen eta sakontzen jarraituko dugu, gertatutakoa ahaztu gabe, gero belaunaldiek jazotakoa ezagutu eta gure hutsegitetik ikas dezaten".

- "Alderdi guztien ordezkariarekin osatutako mahaia, txostenak mahai gainean jarri dizkion etxekolanak egiten dabil, etorkizuneko urratsak bizikidetzaren inguruan ezta-

baidatzen eta zehazten, erantzukizunez eta bere eskuetan dagoen guztia konpontzeko borondatearekin".

### Bi ekitaldi, Basteron

- "S(u/a) minetik bakera". Patxi Lurrak zuzendutako ikusentzunezko proposamen eszenikoa. Abenduaren 19an, ostegunarekin, 18:30ean.
- "Asier eta biok" Aitor Merinok zuzendutako dokumentala. Ondoren, egilearekin tertulia. Urtarrilaren 14an, asteartarekin, 18:30ean.

## Elkarbizi taldearen bilkura Lopez de Lacalle parkean

Memoriaren egunarekin bat eginez, Andoain Elkarbizik ekitaldi irekia antolatzen darrai. Mikel Arregik adierazpentxo egin eta gero, Blanca Villafañek eta Mari Paz Artolazabalek lore eskaintza egin zuten. Minutuko isilunea egin eta gero, ekitaldia txalo artean amaitu zen. Hainbat herritar elkartu ziren, eta baita PSE-EEko, EAJ-PNVko eta Podemoseko Udal ordezkariak ere.



Lore eskaintza eta isilunea egin zuten. Ekitaldia txalo artean amaitu zen. AIURRI



# Apustu etxeak hizpide Andoaingo Gaztetxean

Jokoari eta adikzioari lotutako errealitate gordin hori buruz solasean aritu ziren, gaien aditu den Igor Meltxor kazetariaren eskutik. Hainbat ideia eta datu eskaini ondoren, hizlariaren eta bertaratu ziren ikusleen artean solasaldia piztu zen

**Mikel Arberas** ANDOAIN

Igor Meltxor idazlea, ikerlaria, analista politikoa eta Kazetari Kanaia webguneko zuzendaria da. Jokoaren errealitate gordinari buruzko hitzaldi ugari ematen ari da Euskal Herrian barrena. Joan zen ostiralean Andoaingo Gaztetxera hurbildu zen, "Jokoa ez da errenta" izen-buru duen hitzaldiari aurkeztera. Espainian eta Euskal Herrian indar handia hartzen ari dira apustu etxeak.

Joko aretoek gizartean eta norbanakoan sortzen dituen kalteen gainean jardun zuen. Askorentzat kaltegarri dena, gutxiengo batzuri onura ekonomikoa eskaintzen dio. Horrez gain, jokoan murgilduta dauden adikzio maila azaldu zuen, alderaketa gordinak erabiliz. "Nik egoera kontrolatzen dut" edota "nik ez dut dirua galtzen" esaldien atzean dagoen errealitatea azaltzen ahalegindu zen. Ildo beretik jarraituz, jokoare-



Igor Meltxor kazetaria hizlari aritu zen, Andoaingo Gaztetxean. AIURRI

kiko dagoen normalizazioaz hausnarketa egin zuen. Normalizazio horren barruan sartzen da publizitatea, futbol taldeak babesteko joera... Negozio eredu horri lotutako irabazi ekonomikoek buruzko datuak eskaini

zituen. Berrogei minutuko azalpenen ostea, solasaldia sortu zen hitzaldira hurbildu zirenen artean. Gazteen artean ohiko diren hainbat zalantza agertu ziren, eta hizlaria horiei guztiei erantzuten ahalegindu zen.



Elektrotzaranga ohikoa da Gaztetxeko ospakizunetan. AIURRI

## Ospakizun handia Gaztetxean

Datorren azaroaren 30ean, urtemugari amaiera ezin hobea emateko asmoz, egun osoko ospakizuna antolatu dute. Egitaraua haxe izango da:

- 14:00 Babarrunjatea gaztetxean.
- 17:00 Kalejira Orkresta elektrotzarangaren eskutik.
- 22:30 Gozategiren kontzertua. Ondoren, DJ Bull.

### Bazkariko eta kalejirako txartelak 15 eurotan salgai

Babarrun jatera egunean bertan joan nahi duenak 20 euro ordaindu beharko ditu. Bazkariko, kalejirako eta kontzertuko txartelak 20 eurotan salduko dira; eta kontzertura soilik joan nahi duenak 8 euroko sarrera ordaindu beharko du.

Jada tiketak salgai jarri dituzte honako tokietan: Gaztetxea, TxuriBeltz, Irunberri eta Lanbroa tabernak.

### Ostiral honetan kontzertua

Andoaingo Gaztetxeko kideek aurtengoan ere ekintzez beteriko hilabetea osatu dute: Kontzertuak, bazkaria, hitzaldia, mus txapelketa, bertso afaria edota haur ikuskizunak.

Ostiral honetan Unidad Alavesa eta BAMMS taldeen musikaz gozatzeko aukera egongo da. Sarreraren prezioa 8 eurokoa da.

## Bizilagunak egitasmoaren edizio berria

Estereotipoekin eta aurreiritziekin haustea helburu duen Bizilagunak ekimenaren edizio berria ospatu zen, joan zen igandean. Jatorri ezberdineko pertsonak eta familiak otordu baten inguruan bildu ziren. Bazkaltzera joan aurretik, aurtengo edizioko hainbat partaidek Zumea plazan taldeko argazkia atera zuten. Ghana, Kolonbia, Maroko, Siria, El Salvador, Argelia, Honduras... 47 pertsonen parte hartu dute aurtengo deialdian. Horiez gain, hamabost gaztez osaturiko taldea bazkaltzeko elkartu zen.







Barjola "Microfísica sexista del poder: El Caso Alcàsser y la construcción del terror sexual" ikerketa liburuaren egilea da. AIURRI

# Alcasser kasu ilun hura gogoan

1990eko hamarkada bizi izan zutenentzat, Alcasser kasua ahaztezina da, emakumeenganako bortxaketa eta biolentzia kasu deigarrienetarikoa izan baitzen. Garai hartako hedabideek gertaerari egin zioten jarraipena aztertu du Barjola adituak

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Nerea Barjola politologo eta berdintasun teknikariak Alcasser kasuari buruzko ikerketatesia argitaratu zuen, iaz. "Microfísica sexista del poder: El Caso Alcàsser y la construcción del terror sexual" izenburupean, liburu hura izan zuen ardatz BasteroKulturgunean eskaini zuen mintzaldian.

Atzera joanda, gogoan hartu behar da Alcasser (Valentzia) herriko Miriam García, Desirée Hernández eta Antonia Gómez gazteak auto-stopa egiten ari

zirela 1992ko azaroaren 13an bahitu egin zituztela, eta handik 75 egunera borda batean hilik topatu zituztela. Torturatu ostean erail egin zituzten. Polizien ikerketen arabera bi gaizkile izan ziren egileak, Antonio Angles eta Miguel Ricart. Lehenak ihes egin zuen eta bigarrenak 1997an epaitu zuten; 170 urteko zigorra ezarri zioten, eta 2013an aske geratu zen.

Kasu hark Espainiako estatuko gizartea bereziki nahasi egin zuen; horretan eragin handia eduki zuen komunikabideek

gertaerari egindako segimendua eta eskainitako tratamendua. Barjolak garai hura bizi izan zuten 40 emakumeren testigantzak jaso ditu, eta zera ziurtatu zuen: "Alcasser hitzak terrorea sinbolizatzen du emakume askorentzat; kasuaren inguruan egin zen kontakizun politikoak emakumeen belaunaldi batengan eragin handia eduki zuen, baita euren etorkizunean ere".

Barjolaren iritziz arrisku sexualaren mitoa nabarmendu zen Alcasser kasuan, historian zehar beste zenbait gertakizunetan

bezala. Britainia Handian, esaterako, garai biktoriaarreko XIX mende bukaeran gertatu ziren Jack tripa-ateratzailearen erailketak (Jack the Ripper ingelesez, Jack el destripador gaztelaniaz) aipatu zituen. Eredu publikoa okupatzen hasita zeuden emakumeei kontuz ibiltzeko mezua zabaltzeko erabili zen kasu hura.

## 80ko hamarkadako lorpenen etetea

Gertakizunak testuinguruan jartzeko ariketa eginez, hizlariak 80ko hamarkadan espainiar estatuan bizi izan zen prozesu soziala gogoratu zuen: "aldatzen ari zen marko politikoa, eta emakumeek bereganatu egin zituzten mugimendu feministari esker etorri ziren lorpenak; ez hori bakarrik, kalera ateratzen hasi ziren eta lorpen horien aldeko borrokan murgildu ziren.

Alcasser kasuaren eskutik, gizartean arrisku sexualari buruzko kontakizun politikoa erakiki zen, aurre egiteko gero eta handiagoa zen emakumearen independentziari aurre". Kontakizun hura misoginiak bultzatuko bortxazko erreakzioa izan zela adierazi zuen Nerea Barjolak.

Basteroko hitzaldian batik bat komunikabideen jokabidea aztertu zuen Barjolak, oso modu kritikoa aztertu ere. Sentsazionalismoa eta familiarren sufrimendua erruz esplotatu zituela esan zuen. Nieves Herro eta Paco Lobatonek garai hartan zuzentzen zituzten telebistako saioak aipatu zituen, batik bat.

Zenbait pasarte biziberritu zituen Basteroko pantailan, entzuleen harridura eraginez. Reality show-aren ete telezaborraren hasierak izan ziren haiek. Hiru gazteak hilik topatu zituzten egunean bertan, Alcasser herriko plaza telebistako plato bilakatu eta bertatik gazteak senitartekoak, lagunak eta herrikideak protagonista bilakatu ziren saio bereziak eskaini zituzten.

Minezko sentimenduak esplotatzeaz gain, hainbat mezu zabaldutako gau hartan eta hu-

## "ALCASSER HITZAK TERROREA SINBOLIZATZEN DU EMAKUME ASKORENTZAT"

rren go egun eta asteetan, ez bakarrik telebistetan, baita ere informazio orokorreko prentsan. Telebistetan egiten zituzten saio berezietan, kazetariak forentseak, kriminologiak, psikologoak... biltzen zituzten eta maiz izu sexualaren mitoa indartzen zuten mezu eredu garriak zabaltzen zituzten, agerikoak edo ez hain agerikoak, Barjolaren azterketaren arabera. Horien artean, aipa daitezke: gazteek ez zutela premiarik asteburuan gauez ateratzeko, eta gutxiago auto-stopa egiteko; hiru nesketatik baten edertasun fisikoa ere probokazio gisa har zitekeela; gaizkileen amak ere errudun izan zitezkeela beren semeek giza baloreak ez transmititzeagatik...

Erruduntzat jo zirenetako baten -Miguel Ricart- aurka 1997an burutu zen epaiketarako espektakularen jarraipenean bilakatu zela gaineratu zuen Barjolak. Disekzio anatomiko forentse batekin irudikatu zuen Barjolak epaiketara. "Komunikabideek detalerik morbo soetan erreparatzen zuten maiz, eraso sexuala banalizatzeraino".

## Emakumeak mintzo

Arrisku sexualaren errepresentazioa deskribatzeko, Barjolak garai hura gertutik bizitu izan zuten 40 bat emakume elkarrizketatu zituen, "Alcasser kasuaz geroztik neuren kolabidea zenbaiteraino aldatu zuten jakin nahi nuen". Hainbat ondorio atera zituen elkarrizketa horietatik. Hona zenbait:

1. Gizon gaiztoaren figurak indarra hartu zuen, aske dabilen horrena, eta nonahi eta noiznahi agertu daitekeena.
2. Emakumeek egunerokotasunean hainbat jokaera birplan-teatu egin zituzten; damua azaltzen zuten, adibidez, auto-stopa egin izanagatik.
3. Eredu publikoen murriztea ekarri zuen. Ordurarte seguruak izan ziren hainbat toki segurtasun gabekoak bilakatu ziren. Adibidez, Euskal Herrian mendi eta natur gu-neak; Valentzia, laranjadia.
4. Gizonaren protekzionismoa baloratzea eragin zuen. Horrekin, halaber, gizonen bere pribilegio historikoa sendotu egin zuten.
5. Txikitatit barneratuta gertatzen diren gorputzeko oroitzenak gutxiena espero zutenean aktibatu egin zitzairen



emakumeei; modu arrazional-  
lean ulertzen zailak diren  
beldurrekin lotutako oroitzap-  
enen aktibazioa izan zen.

6. Inpaktua bizi izan zuten ema-  
kume asko, gerora, euren  
jokabidea birplanteatzera  
heldu ziren; izan ere ohartu  
ziren aurreko jarrera hark  
eragiten zuela gizonek mailaz  
goragoko posizioa edukitzea.  
Erresistentziari ekin zioten,  
hortaz; horietako batzuei fe-  
minismoaren planteamenduak  
baliagarriak izan zitzaizkien  
horretarako.

### Netflix ere jomugan

Netflix plataformak Alcasser  
kasua aktualitatean jarri du  
berriki, iaz argitaratu zuen bost  
orduko dokumental luzearen  
(‘El caso Alcasser’) eskutik. Bar-  
jolak modu kritikoa deskriba-  
tu zuen dokumentala. “Liburua  
argitaratu nuela jakin zutenean  
dokumentalean parte hartzeko  
gonbidatu ninduten. Gidoia  
eskatu nien; irakurri, eta susmo  
txarrak hartu nion eman nahi  
zioten enfokeagatik. Uko egin  
nion parte hartzeari, eta gero  
emaizta ikusita, ondo egin nua-  
la iruditzen zait. Bost aldiz iku-  
si dut, eta argi daukat morboan  
sakondu dutela egileek. Autop-  
sien edo epaiketaren atalik mor-  
boenei garrantzia handia eman  
diete, esate batera. Posizio neu-  
tralaren plantak egin dituzte,  
eta horrela, garai hartan esan  
eta egin ziren astakeriak bestiek  
esan dezaten utzi dute”.

Nerea Barjolak adierazi zuenez,  
belaunaldi bakoitzak bere “kon-  
takizuna” dauka. Nagore Lafage,  
Rocio Wanninkhof, Sandra  
Palo, Manada... “Gaur egungo  
Espainiako telebistetan agertzen  
zaizkigun programa batzuk ez  
dira ordukoak baino hobeagoak”.

## Azaroak 25 | Ekitaldia Andoain

### Azaroak 23, larunbata

Autodefentsa feminista tailerra.  
10:00-14:00 / 16:00-20:00.  
Allurralde. Elebitan.

### Azaroak 25, astelehena

Indarkeria matxistaren  
biktimei omenaldi  
ekitaldia.  
19:00 Goikoplaza. Elebitan.

### Azaroak 29, ostirala

Memoria eraikiz ekimena.  
Goizez ikastetxeentzat,  
arratsaldez hiritarrentzat.  
18:00, 19:00, 20:00  
Goikoplaza. Elebitan.  
Erreserbak: berdintasuna@  
andoain.eus  
943 300 830.



Samara Velte. TXALAPARTA

### Azaroak 21, osteguna

“Nik sinisten dizut”  
Samara Velteren liburuaren  
aurkezpena eta kafe tertulia.  
19:00 Bilgunea.



Liburuaren hiru ale ikusleen artean zozketatu zituzten. AIURRI

## Liburuaren zozketa

Andoaingo Udalak antolatutako zikloaren baitan antolatu zen  
hitzaldia. Ekitaldia amaituta, Barjolak idatzitako liburuaren hiru ale  
ikusleen artean zozketatu zituzten.

## “Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia”

Danobatgroup kooperatiba taldeko enpresen lehiaketa  
berria, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira

### Erredakzioa ANDOAIN

Danobatgroup industri taldea  
makina-erreminten fabrikazioan,  
balio erantsi handiko osagaien  
fabrikaziorako garapenetan,  
giltza eskura erako ekoizpen  
sistemetan eta zerbitzu tekno-  
logikoki aurreratueta espezia-  
lizatuta dago eta Danobatgroup  
kooperatibaz gain Danobat,  
Goiti, Soralue, Goimek, Latz  
eta Ideko kooperatibek osatzen  
dute taldea.

Taldeko enpresak kokatuta  
dauden ingurune soziolinguis-  
tikoari begiratuz eta kooperati-  
ben izateko era eta konpromi-  
soari jarraituz lema dioen  
moduan euskara da batzen gai-  
tuen esentzia hori eta euskarak  
arlotan guztietan presentzia izateari  
ematen ari zaio garrantzia  
azken urteetan. Presentzia egu-  
neroko lanean, teknologia ber-  
rietan, elkarren arteko harre-  
manetan, ikerketa eta garape-  
nean...

Baina egunerokotasunetik  
haratago gizarteari ere euska-  
rarekiko duen konpromisoaren  
berri eman nahi zaio Danobat-  
groupetik eta presentzia izatera  
bideratu batzen gaituen hori.

Danobatgroupek harreman  
sare zabala du eta bezeroekin  
sari ingelesez baliatu behar  
izaten bada ere bertako langile,  
hornitzaile, bezero, ikastetxe,  
administrazio eta abarrekin  
euskara erabiltzeko konpromi-  
so sendoa du eta horren adie-  
razgarri taldeko kooperatiba  
guztietan euskararen erabilera

bultzatzeko dituen planak, lor-  
tutako eta lortzeko bidean dau-  
den Bikain Euskararen Kalita-  
te Ziurtagiriak.

Aurten, aurreko urteetako  
bideari jarraipena emanez esan  
bezala Danobatgroupek lantegiak  
dituen herrietako herritar guz-  
tiengana iritsi nahiko luke tal-  
deko euskararekiko konpromi-  
soa ezagutzera emanez euska-  
raren eguneko hurrengo lehia-  
ketaren bidez.

Lehiaketan parte hartzeko  
ondorengo helbidean sartu behar  
da: [info.danobatgroup.com/eus-  
kara/lehiaketa-2019.html](http://info.danobatgroup.com/eus-kara/lehiaketa-2019.html)

Galderei erantzuteko Dano-  
batgroup-ek bere eguneroko  
lanean erabilienak dituen hitz  
teknikoz osatutako hiztegi-  
an hainbat kontsulta egin beharko  
dira honako esteka honetan:  
[www.danobatgroup.com/eu/  
euskara](http://www.danobatgroup.com/eu/euskara) eta hiztegiaren sartzeko  
hitz berriren bat proposatu.

Abenduaren 3ra arteko epea  
izango da lehiaketan parte har-  
tzeko, eta parte hartzaile guztien  
artean Basque Culinary Center-  
en eskutik bi lagunentzako  
360°ko esperientzia gastron-  
omikoa izateko aukera zozkatu-  
ko da.

## ABENDUAREN 3RA BITARTE INTERNET BIDEZKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO DA



andoaINDARRA  
euskaraz

**DANOBATGROUP**

**HARTU PARTE DANOBATGROUPen  
EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!**

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko  
gure ekimenak eta irabazi bi lagunentzako 360°ko  
esperientzia gastronomikoa Basque Culinary Cen-  
ter-en eskutik.

<https://info.danobatgroup.com/euskar/lehiaketa-2019.html>

\*Parte hartzeko azken eguna: 2019ko abenduak 3, 00:00

**Batzen gaituen  
esentziak  
izan dezala  
presentzia**

DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.





Joseba Zabaleta oiartzuarra gidari lanetan aritu zen. AIURRI

## 'Soinuenea' musika tresnen erakusketa hezitzailea

Joseba Zabaleta adituak tailer praktikoa eskaini zien Lurdes Iriondo Udal musika eskolako ikasleei

**Mikel Arberas** URNIETA

Aurrera Gure Ametsa dantza taldeak, hogeigarren urteurreneko ekitaldien artean, Soinueneako musika-tresnen erakusketa antolatu du Lekaio kultur etxean. Joan zen astean, Lurdes

Iriondo musika eskolako ikasleek bisitaldi gidatuaz gozatzeko aukera izan zuten. Joseba Zabaleta oiartzuarra gidari lanetan aritu zen. Jardueraren bideoa ikusgai dago aiurri.eus webgunean.



Erakusketa zabalik egon den astean bi bisitaldi gidatu antolatu dituzte. AIURRI



Aurkezpen ekitaldia. UEMA

## "Arnasa gara" kanpainaren aurkezpena Xoxokan

Larunbat arratsaldean egingo dute Xoxokako aterpean, iluntzeko 19:00tan hasita

**Erredakzioa** URNIETA

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiek, UEMAK eta hainbat udalerriek 'Arnasa gara' izeneko kanpaina aurkeztu dute. Euskararen indarberritzeari lotuta dago, eta helburua hau da: "Euskararen arnaguneetako biztanleen ahalduntzea eta kontzientziazioa indartzea, euskararen indarberritzean duten garrantziaz jabetu daitezen".

Prozesua bi zatitan banatuta dago. Lehenena arnaguneetara iristea da. Urnietan, esaterako, Goiburu-Xoxoka auzora. Bigarrena, Euskal Herri osora zabalduko da, arnaguneen errealitatea eta garrantzia ezagutze-eramateko.

UEMAko lehendakari Josu Labakak aurkezpen ekitaldian honakoa adierazi zuen: "Herri honen berezko hizkuntza modu naturalean arnaguneetan ari da taupaka, sendo eta osasuntsu. Horregatik, arnaguneen garrantzia lau haizetara zabaltzeko beharra ikusi dugu. Bestetik, gainerako euskal herritarrek ere arnaguneak babestea euskararen normalizaziorako ezinbestekoa dela jakin behar dute, hizkuntza ekologiaren ikuspegian bide eginez".



Pakistango postua egape ikastolako jolastoki estalian. ETXEBERRI

## Kultur artekotasuna sustatzeko egun osoko ekimena

Etxeberri plazak antolatuta, Egape ikastolako jolastokia jatorri eta kultura ezberdinen topagune bilakatu zen

**Erredakzioa** URNIETA

Afrika, Amerika eta Europako herrialde ezberdinetatik etorritako bizilagunak ditugu Urnietan. Etxeberri plaza auzo elkarteak, eta Estela Cuevasek bereziki, hango eta hemengo urnietarrak

elkartzeko saiakera polita egin zuten. Aiurriri azaldu bezala, "aniztasunak aberastu egiten gaitu. Guk etortzen direnei hemengo ohiturak eta bizimoldea erakusten dizkiegun neurrian, haiengandik ikas genezake".



Mundu zabaleko gastronomiaz gozatzeko aukera izan zen. ETXEBERRI



Hennaz eskuak apaintzeko aukera izan zen. ETXEBERRIETA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# Bisitaldia Adarrazpira

Idiazabal jatorri izendapena duen gazta ekoizten da Goiburu auzoko baserrian. Parketxe sarea fundazioak antolatuta, bisitaldi gidatu bana antolatu zuten larunbatean eta igandean. Ardiak ikusi eta gazta egiteko prozesu osoa ezagutu ahal izan zen



Larunbateko bisitaldi gidatua berehala bete zen, eta bigarren saioa antolatu zuten iganderako. AIURRI

**Erredakzioa** URNIETA  
Adarrazpiko artaldea 350 ardiz osatuta dago. Uda Aralarren igaro eta gero, udazkenean iritsi ziren Urnietara. Ardiek oinez egin zuten mendialdetik baserri-

ra doan laurogei kilometroko zeharkaldia. Lau egun eman zituzten, Leitzaran haranatik barrena Xoxokara iritsi arte. Azken hilabetea arkumetxoak jaio dira, eta jaiotzear dira gehie-

go. Urteen poderioz prozesu osoa ondo egituratu dute. Asteotan Adarrazpin ardiei jana eman, esnea atera eta gazta egiten dute. Bisitariek pozesu osoa bertatik bertara ezagutu zuten.

## Baserriaren martxa barrutik ezagutzeko aukera aparta



Mikel Beldarrainek eta Itsaso Arizetak bisitariei Adarrazpi baserrian barrena ibilbide gidatua eskaini zieten. AIURRI



Arkumetxoak besoetan hartzeko aukera izan zen, baita gazta egitekoa ere. Jarduera hamaiketakoarekin amaitu zen. AIURRI



Juanjoxe Iribar, Axier Odriozola eta txapela jantzi zion Jaxone Iguaran. AIURRI

## Lizeaga nagusitu zen Oianumeko sagardo txapelketan

DIVA Pentsuak eta Oianume sagardotegiak antolatuta, txapelketaren VII. edizioa egin zuten azaroaren 15ean

### Joxeba Lizeaga URNIETA

Kanpoan euria eta txingorra errukirik gabe, giro hotz eta umela, benetan iluna, sagardotegian babesteko ezin aproposagoa, eta deialdiari erantzunez 50 lagunetik gora hartu zuten parte afarian eta epaile lanetan. Gehienak gizonezkoak. Beste hainbat txapelketetan ohikoa den moduan, honetan ere, afaltzera bertaratzen direnak izaten dira epaile lanetan aritzen direnak.

### Hamaika sagardogileen uzta

Oianumeko txapelketara bertaratutakoak, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Aduna eta Tolosako hamaika sagardotegietako sagardoa dastatu eta epaitu zuten, arrain, zein haragiz ondo hornitutako afarian zehar. Aipatzekoa da, bertaratzen diren gehienak benetako sagardozaleak

direla, beraz, esan dezakegu hanka sartzeko beldur handirik gabe, maila handiko epaileak direla.

Afalostean eman zen ezagutzera txapelketaren emaitza. Astigarragako Lizeaga sagardotegiak jantzi zuen txapela preziatua. Bigarren postua, Astigarragako Etxeberria sagardotegiarentzako izan zen, eta hirugarren, Hernaniko Elorrabi sagardotegia sailkatu zen.

Ohikoa den moduan, aurtengo edizioan ere nabarmentzekoa izan zen antolakuntza lan bikaina, afariari zein txapelketari dagokionean, puntuak emateko orduan ondoena ibili zena sari-tuz eta abar. Bejondeizuela!

### Sailkapena:

- |               |              |
|---------------|--------------|
| 1. Lizeaga    | 372,5 puntu. |
| 2. Etxeberria | 336,0 puntu. |
| 3. Elorrabi   | 327,5 puntu. |



Sagardozaleak ziren guztiak, beraz, Oianumekoa maila handiko epaimahaia izan zen. AIURRI



KARTELDEGIA

|                                        |          |  |
|----------------------------------------|----------|--|
| FUTBOLA                                |          |  |
| OHOREZKO ERREGIONAL MAILA              |          |  |
| Euskalduna-Oiartzun                    | 0-3      |  |
| NESKAK, 0. ERREGIONALA                 |          |  |
| Lagun Onak-Urnieta                     | 5-3      |  |
| SAILKAPENA                             |          |  |
| 1 Arizmendi                            | 25 puntu |  |
| 11 Urnieta                             | 5 puntu  |  |
| ASTEBURUKO PARTIDA                     |          |  |
| 15:30 Urnieta- Ostadar / Ig, 23        |          |  |
| ERREGIONAL PREFERENTE                  |          |  |
| Urnieta-Lizeoa                         | 1-1      |  |
| ERREGIONAL 1. MAILA                    |          |  |
| Euskalduna-Urola                       | 2-2      |  |
| SAILKAPENA                             |          |  |
| 1 Anaitasuna                           | 19 puntu |  |
| 4 Euskalduna                           | 14 puntu |  |
| PREFERENTE NESKAK                      |          |  |
| Euskalduna-Axular                      | 6-0      |  |
| SAILKAPENA                             |          |  |
| 1 Euskalduna                           | 22 puntu |  |
| 2 Añorga                               | 21 puntu |  |
| JUBENIL MAILA, OHOREZKOA               |          |  |
| Orioko-Euskalduna                      | 2-1      |  |
| SAILKAPENA                             |          |  |
| 1 Euskalduna                           | 23 puntu |  |
| 2 Ekintza                              | 21 puntu |  |
| ASTEBURUKO PARTIDA                     |          |  |
| 17:15 Euskalduna- Hernani / Lar, 23    |          |  |
| JUBENILEN 1. MAILA                     |          |  |
| Urnieta-Billabona                      | 2-1      |  |
| Euskalduna-Ordizia                     | 1-4      |  |
| KADETE, A MAILA                        |          |  |
| Hernani-Euskalduna                     | 0-7      |  |
| SAILKAPENA                             |          |  |
| 1 Euskalduna                           | 27 puntu |  |
| 4 Urnieta                              | 8 puntu  |  |
| ASTEBURUKO PARTIDA                     |          |  |
| 15:30 Euskalduna - Lengokoak / Lar, 23 |          |  |
| 17:30 Urnieta- Billabona / Lar, 23     |          |  |
| KADETE, B MAILA                        |          |  |
| Euskalduna-Amara Berri                 | 9-0      |  |
| SAILKAPENA                             |          |  |
| 1 Santo Tomas Lizeoa                   | 22 puntu |  |
| 5 Urnieta                              | 9 puntu  |  |
| 6 Euskalduna                           | 6 puntu  |  |
| KADETE NESKAK                          |          |  |
| Euskalduna-Intxaurdi                   | 0-0      |  |
| Ostadar-Urnieta                        | 0-2      |  |
| ASTEBURUKO PARTIDA                     |          |  |
| 12:00 Euskalduna- Urnieta / Ig, 23     |          |  |
| ESKUBALOIA                             |          |  |
| EUSKADI, SENIOR MUTILAK                |          |  |
| Urnieta-Gure Auzune                    | 30-26    |  |
| GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK               |          |  |
| Urola-Leizaran                         | 21-37    |  |
| ASTEBURUKO PARTIDA                     |          |  |
| 18:00 Leizaran- Hondarribia / Lar, 23  |          |  |

|                                         |          |  |
|-----------------------------------------|----------|--|
| GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK               |          |  |
| Elgoibar-Leizaran                       | 20-36    |  |
| Urnieta-Tolosa                          | 26-24    |  |
| SAILKAPENA                              |          |  |
| 1 Urnieta                               | 12 puntu |  |
| 2 Leizaran                              | 9 puntu  |  |
| GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK                |          |  |
| Urnieta-Orio                            | 26-22    |  |
| SAILKAPENA (1. TALDEA)                  |          |  |
| 1 Eibar                                 | 10 puntu |  |
| 2 Urnieta                               | 10 puntu |  |
| SAILKAPENA (2. TALDEA)                  |          |  |
| 1 Pulpo                                 | 10 puntu |  |
| 2 Leizaran                              | 10 puntu |  |
| ASTEBURUKO PARTIDA                      |          |  |
| 16:30 Leizaran-Aiala / Lar, 23          |          |  |
| GIPUZKOA, KADETE MUTILAK                |          |  |
| Leizaran-Ereintza                       | 36-27    |  |
| Urnieta-Urola                           | 28-12    |  |
| Leizaran Horia-Bergara                  | 14-25    |  |
| SAILKAPENA (A-1. TALDEA)                |          |  |
| 1 Amenabar                              | 14 puntu |  |
| 2 Leizaran                              | 12 puntu |  |
| SAILKAPENA (A-3. TALDEA)                |          |  |
| 1 Aloña Mendi                           | 12 puntu |  |
| 3 Urnieta                               | 10 puntu |  |
| GIPUZKOA, KADETE NESKAK                 |          |  |
| Urnieta-Aloña Mendi                     | 15-31    |  |
| Astigarraga-Leizaran Horia              | 9-34     |  |
| Bergara-Urnieta I.M                     | 21-22    |  |
| SAILKAPENA (A-1. TALDEA)                |          |  |
| 1 Eibar                                 | 12 puntu |  |
| 3 Leizaran                              | 8 puntu  |  |
| SAILKAPENA (B-)                         |          |  |
| 1 Leizaran Horia                        | 10 puntu |  |
| 2 Urnieta I.M                           | 8 puntu  |  |
| ASTEBURUKO PARTIDA                      |          |  |
| 13:00 Leizaran Horia-Ereintza / Lar, 23 |          |  |
| 12:00 Urnieta-Astigarraga / Ig, 24      |          |  |
| ARETO FUTBOLA                           |          |  |
| LIGA, 1. JARDUNALDIA                    |          |  |
| Eguzki-Euskalduna                       | 4-0      |  |
| SAILKAPENA                              |          |  |
| 1 Oiartzun                              | 17 puntu |  |
| 5 Euskalduna                            | 11 puntu |  |
| SASKIBALOIA                             |          |  |
| SENIOR GIZONEZKOAK 3. MAILA             |          |  |
| Zurrut-Elorri Aldapa                    | 50-57    |  |
| SAILKAPENA                              |          |  |
| 1 Take Coach                            | 7 puntu  |  |
| 6 Zurrut S.K.                           | 5 puntu  |  |
| JUNIOR MUTILAK                          |          |  |
| Ganbara-Saski Axular                    | 13-82    |  |
| ASTEBURUKO PARTIDA                      |          |  |
| 09:00 Ganbara- Axular / Lar, 16         |          |  |
| KADETE MUTILAK                          |          |  |
| Astigarraga-Ganbara                     | 45-37    |  |

# Hirugarren garaipena

**ESKUBALOIA** Urnietako lehen taldeak denboraldiko hirugarren garaipena eskuratu du, zailtasunez beterik dagoen Euskadiko ligan. Arabako Gure Auzunea taldea garaitu zuten (30-26), kostata ere. Sei punturekin, jaitsiera saihesteko borroka bizian daude



Oier Duran eta Julen Lizeaga lehen taldearekin aritzen diren jubenil mailako jokalaririk dira. UKE

**Erredakzioa** URNIETA

Astedenaldira abantailarekin iritsi baziren ere, partida amaitu arte gogotik lan egin behar izan zuten. Aurkariak ez baitzuen gol average-a zailtzea nahi.

**Senior mailako neskak**

Egia taldearekin batera, lidergo-tzari eusten diote. Ez dute partidarik galdu, maila bikaina erakutsiz. Elgoibar taldea (22-20) azken unean gainditu zuten.

**Leizaran eskubaloia**

Kadete eta jubenil mailako taldeek Gipuzkoako txapelketako lehen fasea ondo amaitu dute. Emaitzako horiei esker bigarren fasera-ko sailkapena lortu dute.

## Igerilariak Allurralden

**IGERIKETA** Alebin mailako Buruntzaldea IKT taldeko 14 igerilarik parte hartu zuten. Emaitzak ez dira garrantzitsuena maila hauetan, baina azpimarratu beharra dago neskak erreleboka Euskal Herriko txapelketan aritzeko sailkatu direla.



BURUNTZALDEA IKT







Nora Mendizabal Gipuzkoako Herriartekoan. AIURRI

# "Onenen artean egon nahiko nuke"

## NORA MENDIZABAL ANDOAINGO PILOTARIA

**ESKUPILOTA** Andoindarrak maila handia erakutsi du pilota partidetan. Apurka-apurka pilotari honenen artean egoteko bidea egiten ari da

### Mikel Arberas ANDOAIN

Nora Mendizabal andoaindarrak zenbait txapelketa eta jaialdi jokatu ditu, urtean zehar. Oraingoan, Bizkaia frontoian andrazkoen eskupilotako txapelketa jokatzeari egokitu zaio. Amaia Alday pilotariarekin jokatzen

ari da. Jada bi partida jokatu, txapelketa aurrera doa. Lehenengo partidaren garaipena lortu zuten, alde handiarekin. Bigarren partida parekatuta egon zen arren, aurkariak gailendu ziren. Ostiralean hirugarrena jokatu dute, 19:00tan hasita.

Asteburuari begira, igandean Lau t'erdiko Emakume Master Cup txapelketako final laurdenak jokatu ditu Zamudion Laia Salsamendi nafarraren aurka. **Noiztik duzu pilotarekiko afizioa?** Anaia pilotari hasi zen, eta beste ume askok ere entrenatzen

zutenez animatu egin nintzen. Andoni Alvarez garai hartan entrenatzailea zen, eta esku pilotari jokatzen hasia gomen datu ninduen. Esan beharra daukat oso gazte nintzela, eta pozarren hasi nintzela pilotari. Gainera, frontoian neska bakarra izan ohi nintzen, baina egia esan niri berdin zitzaidan gustuko nuen kirola egiten nuela.

### Eskupilotari gain beste kirol batzuk praktikatzeko dituzu?

Txikitatik izan naiz oso kirol-zalea. Une honetan eskubaloian eta eskupilotari soilik jarduten dut, oraintxe bertan gustukoena ditudan baitira.

### Nola tartekatzen dituzu ikasketak, entrenamenduak eta partidak?

Ahal dudana bezala antolatzen dut guztia. Entrenamenduak ia egunero ditut eta, askotan, gaueko 22:00ak aldera egiten ditut etxekolanak. Batzuetan entrenamenduaren aurretik tarte hartzen dut. Gainera, asteazketan pilotari eta eskubaloiko entrenamenduak ditut jarraian. Gogorra egiten zait batzuetan, baina gustuko dudana egiten dut.

### Jokatzen dituzun pilota partidetan maila handia dago?

Maila handia dago, bai. Oso gustura jokatzen dut pilotari eta, azken aldian, partidari asko jokatzen ari naiz.

Norgehiagokoren arabera maila handiagoa edo apalagoa da. Txapelketa batzuetan betikoen artean lehiatzen gara toke erdiko pilotekin; baina, esaterako, Emakume Master Cup txapelketa, esperientzia gehiena dutenek lehen mailan ematen dute izena, nik, berriz, bigarren mailan jokatzen dut.

### Euskal Herriko frontoi asko eza-gutuko dituzu pilota jaialdien bitartez...

Euskal Herriko txoko askotan jokatu dut, jaialdien bitartez frontoi eta herri asko eza-gutu ditut. Burgosko herriren batean ere jokatu dut.

Egun batean, Avilan jokatzeko aukera eman zidaten, baina partidua jokatzeko bidaia luzea zela eta ezezkia eman nuen.

**"FRONTOIEAN NESKA BAKARRA IZAN OHI NINTZEN, BAINA EGIA ESAN NIRI BERTIN ZITZAIKAN"**

### Norgehiagok asko edukitzen dituzu eta zenbait txapelketetan parte hartzen duzu. Entrenamendu gogorak egiten dituzue mailari eusteko?

Normalean entrenamendu biziak egiten ditugu, gogo handiarekin eta betiko kideekin. Lehen fisikoa lantzeko entrenamenduak ere egiten genituen, baina eskubaloian nahikoa egiten dudala pentsatzen dut.

Dena den, gogo eta seriotasuna ez da falta entrenamenduetan, entrenatzaile onak baititugu.

Aurten, gure kabuz entrenatzen hasi gara. Lau kide elkartzeko Zubietako frontoian, partidak egiteko. Lehen esan bezala, ez dut entrenamendu faltarik. **Patri Espinar pilotari handiaren aurka jokatu zenuen Gipuzkoako txapelketan...**

Patri maila handia dauka. Nola jokatzen zuen ikusi nuen errespetu handia eman zidan. Binakako partida izan zen; ni aurretik aritu nintzen eta Patri atzetik. Ez zen batere erraza izan horrelako partida bat jokatzeko, baina maila erakutsi nuela uste dut.

### Pilota munduan murgiltzen zareten emakumeak geroz eta gehiago zarete...

Pixkanaka-pixkanaka aurrerapausuak ematen ari garela uste dut. Duela urte batzuk, ez ziren emakumezkoen pilota partidak ikusten; orain, aldiz, ikusmin handia sortzen dute emakumezkoen pilota saioek. Komunikabideetan geroz eta garrantzia handiagoa ematen diote. Gainera, duela gutxi EPE Emakume Pilotarien Elkarte sortu zen, pauso handia da hori.

### Andrazkoen eskupilotako Bizkaia txapelketa garrantzitsuko aurkezpenean izan zinen.

Izan nintzen, bai. Bigarren urtea da txapelketa egiten dela. Lau bikoteko ligaxka egingo da, eta lehenengo biak jokatu dute finala, eta besteek hirugarren eta laugarren postuak jokatu dituzte. Horrez gain, partidatarako kamisetak jaso eta aurkezpenerako argazkiak ateratu genituen.

**"EUSKAL HERRIKO TXOKO ASKOTAN JOKATU DUT, FRONTOI ETA HERRI ASKO EZAGUTU DITUT"**



## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 21

**URNIETA Argazki-erakusketa**  
"Soinuen Begiradak".  
*Abenduaren 2ra arte. Lekaio.*

"Sarobek 25 urte". Atrezzoak, jantziak, kartelak, ikus-entzunezkoak... erakusketa dotorea prestatu dute.  
*Abenduaren 15era arte. Sarobe.*

**ANDOAIN Erakusketa**  
"Esencia eta Existence".  
*Abenduaren 20ra arte. Bastero.*

**ANDOAIN Hitzaldia**  
"Nik sinisten dizut", Samara Velteren liburuari buruzko hitzaldia. Egilea bertan izango da. Ondoren, kafe tertulia.  
*19:00, Zumea kaleko Bilgunea.*

**ANDOAIN Mahai-ingurua**  
Emakumezkoak Euskal Prentsan: zenbat gara? Hizlariak: Arantza Gutierrez, Itxaso Fernandez eta Xabier Saralegi. Moderatzailea: Libe Mimenza.  
*19:00, Martin Ugalde parkea.*

**ANDOAIN Bertso afaria**  
Unai Muñoz eta Ander Lizarralde bertsolarien parte hartzearekin.  
*20:00, Andoingo Gaztetxea.*

## OSTIRALA 22

**URNIETA Ipuin kontaketa**  
Ixabel Agirresaroberen eskutik.  
*17:30, Ludoteka.*

**ANDOAIN Kontzertua**  
Eñaut Elorrieta zuzenean. "Irteera argiak" disko berriaren aurkezpen kontzertua eskainiko du.  
*21:30, Bastero.*

**ANDOAIN Kontzertua**  
Unidad Alavesa eta Bams zuzenean.  
*22:00, Gaztetxea.*

## LARUNBATA 23

**URNIETA Tailerra**  
"Dantza familian" tailerra Arantza Iglesiasen eskutik. Familia osoarentzat. Dohainik.  
*10:30, 11:30, Sarobe.*



'Pentagrama-Enea' 2017an aurkeztu zuten antzezlanak izan zen. AIURRI

## URNIETA Kafe antzerkia

Urnietako Udal antzerki tailerraren eskutik, ikasturte amaierako hainbat antzezlan gogora ekarriko dituzte. Aktore lanetan arituko dira Conchi Gonzalez, Esther Modia, Gentzane Unanue, Isidro Salinas, Juan Karlos Erasun, Julio Nogales, Koro Berasategi, Lupe Herrero, Pilar Brandariz, Rosa Elozegi eta Xabier Odriozola. Zuzendari lanetan Mikel Agirregomezkorta arituko da.  
*21:00, Sarobe. Doan. Azaroak 22, ostirala.*

**HERNANI Kanpaina**  
Sare ekimenaren anbulantzia Hernanin barrena. Elkarretaratzea eta performance-a antolatu dituzte.  
*13:00, Plazaberri.*

**ANDOAIN Ospakizuna**  
Andoingo Skate Taldearen eskutik, ospakizuna skategunean.  
*12:00, Doako ikastaroak.*  
*14:30, "Game of skate" txapelketa.*

**URNIETA Aurkezpena**  
'Arnasa gara' euskara sustatzeko egitasmoaren aurkezpen ekitaldia.  
*19:00, Xoxokako aterpean.*

**URNIETA Dantza**  
"Maurizia naz", Aukeran dantza konpainiaren kale ikuskizuna.  
*19:00, San Juan plaza.*

## IGANDEA 24

**ANDOAIN Kontzertua**  
Udal musika eskolako banda.  
*12:30, Bastero.*

**URNIETA Antzerkia**  
Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunarekin bat eginez, "Elisa y Marcela" antzezlanak.  
*19:00, Sarobe. 5 euro.*

## ODOL EMAILEAK

## URNIETA

**Azaroak 27, asteazkena**  
18:30-20:30.  
Anbulatorioa.



## GUARDIAKO FARMAZIAK


## ANDOAIN

**Larunbata 23 eta igandea 24**  
DIAZ: Kale Nagusia, 19.  
943 592 057 Andoain.

## URNIETA


**Larunbata 23 eta igandea 24**  
URRUTIA-MARTIN: Etxeberri, 1.  
943 557 738 Hernani.

## ZINEMA



**ANDOAIN**  
**Asto erregea**  
Lar, 23: 17:00.  
Ig, 24: 17:00.  
**El silencio de la ciudad blanca**  
Lar, 23: 19:30, 22:00.

Ig, 24: 17:00, 19:30.  
Asti, 25: 19:30, 22:00.  
**Si yo fuera rico, Shaun arditxo**  
Datorren asteburuan.



## SINOPSISIA



**El silencio de la ciudad blanca**  
Zuzendaria: Daniel Calparsoro. **Aktoreak:** Belen Rueda, Javier Rey, Aura Garrido, Manolo Solo, Alex Brendemühl. **Herrialdea:** Espainia (2019). **Generoa:** Thriller. **Iraupena:** 110 min.

## Galardin matrikulazio epea zabalik

2020ko urtarrilean hasi eta uztaile bitarte, 0-1 eta 1-2 urteko haurrak matrikulatzeko epea zabaldu da. Azken eguna abenduaren 7a izango da. Haurreskola ezagutzeko aukera izango da, bi ate irekiera saioen bitartez. Azaroaren 25ean eta abenduaren 2an, hurrenez hurren, Galardiko ateak zabalik izango dira arratsaldeko 16:30etik 17:30era. Izen-ematea Bastero Kulturgunean egin behar da (943 303 540). Ordutegia: 10:00-13:00 / 16:30-19:30.



Galardi Haureskola Extremadura kaleko 6. zenbakian dago (943 300 655).

## ASTELEHENA 25

**ANDOAIN Omenaldia**  
Indarkeria matxistaren biktimei omenaldi ekitaldia.  
*19:00 Goikoplaza.*

## OSTIRALA 29

**ANDOAIN Erakusketa**  
Memoria eraikiz ekimena. Goizez ikastetxeentzat, arratsaldez hiritarrentzat.  
*18:00, 19:00, 20:00 Goikoplaza.*

**ANDOAIN Kontzertua**  
"Don Inorrez" Imanol Ubedaren musika egitasmoa.  
*21:30, Bastero.*

## IGANDEA 1

**ANDOAIN Kontzertua**  
Olagain Txistularien Banda, hainbat laguntzaileekin batera.  
*12:00, Bastero.*

**URNIETA Antzerkia**  
"Ghero" antzezlanak, euskaraz. Sarreraren zozketa azaroaren 24ra arte zabalik.  
*19:00, Sarobe. 5 euro.*



ZORION AGURRAK




ANDOAIN  
**Salvatxo**  
Beste urte bat...47  
jadanik!!! Ondo pasa eta  
eskerrik asko beti gu  
zaintzeagatik.  
Besarkadak.  
Maite zaitugu.



ANDOAIN  
**Zorionak Alus eta  
Haizea!!!**  
Hurrengo astean bi  
urtebetetze-festa izango  
ditugu etxean:  
azaroaren 24an eta  
27an! Muxu handi bana!



ANDOAIN  
**Beñat Ardiaka**  
Azaroaren 21ean  
Beñatek lehen urtetxoa  
bete zuen. Ze azkar hazi  
zaren txiki! Besarkada  
handia, amatxoren  
kuadrilla.



URNIETA  
**Mikel eta Anahis**  
Zorionak zuen guraso,  
aiton-amona,  
berraiton-amona,  
osaba-izeba eta  
lehengusuen partetik.



ANDOAIN  
**Alaia eta Nora Etxaniz  
Makazaga**  
Gure neskek  
abenduaren 3an  
7 urte beteko dituzte!!  
Zorionak, zoragarriak  
zarete!!

Euskarazko kazetaritzaren  
hitzordu bikoitza Andoainen

"Rikardo Arregi irakurtzen, 50 urte ondoren"  
eta Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak azaroaren 28an

Erredakzioa ANDOAIN

Rikardo Arregik idatzitako hainbat idazlanen irakurketa publikoa egingo dute datorren azaroaren 28an, Andoaingo Udalak antolatutako egun osoko ekitaldian. Egunari amaiera emateko, Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien edizio berria ospatuko da. Bi hitzordu nagusi antolatu dituzte, Rikardo Arregiren heriotzaren 50. urteurrenarekin bat eginez. Laster, gainera, egitaraua osatzera datorren film laburraren estreinaldia egingo dute.



Rikardo Arregi. AIURRI

Irakurketa publikoa

Rikardo Arregiren pieza ezberdinen irakurketa publikoa egingo dute. Egun osoko ekitaldia izango da, eta parte hartzaileen artean kultura munduko eragileak aipa daitezke. Baita andoaindar euskaltzale ugari ere.

- Orduetgia: 10:00-18:00.
- Tokia: Bastero plaza.

Sari banaketa ekitaldia

Urtean zehar euskarazko kazetaritzan nabarmendutako lanak sarituko dituzte. Sariketa erreferentziazkoa bilakatu da Euskal Herrian. Udalak Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatzen du. Aurten bi sari nagusi banatuko dituzte, eta irabazleen berri ekitaldian bertan emango dute.

- Orduetgia: 19:00-20:00.
- Tokia: Bastero Kulturgunea.



Oiartzabal, Jauregi eta Berrondo "Baltzuketa" abestiaren partitura eskuetan dutela.

Santa Zezilia eguneko  
kontzertua Santa Krutz elizan

Larunbat honetan kalejiran abiatuko dira Goikoplazatik, 19:30ean hasita. Kontzertua 20:00tan hasiko da

Xabier Lasa ANDOAIN

Gora Kaletxiki Bandak kontzertua eskainiko du Santa Krutz ermitan, larunbatean. Santa Zezilia musikarien egun handia gogoan hartuko dute, horrela. Ez dira bakarrik arituko, gonbidatuak izango baitituzte. Hernaniko Doinu Zale akordeoi orkestra eta Ozenki abesbatza. Aparteko osagaiekin dator kontzertua, bi abesti estreinatuko baitira bertan. Biak ere Joxe Mari Oiartzabalek eta Joxerramon Berrondok elkarrekin sortutakoak.

Bata 'Bonbardino hotsak' da, taldeko hiru bonbardino jole eskarmentatuei esker oneko gorazarre gisa sortu dutena; Jose Luis Fernandez "Fitero", Paco Perez eta Pako Bidasoro dira egileek hizpide dituzten hiru musikarien izenak. Urtean aurrera badoaz ere, ez daukate musika baztertze asmorik. Bigarrena, 'Baltzuketa' abestia da, Leizotz auzoko

baserrian bizi den Jauregi-Mendizabal familiari eskaini zaiona.

Emanaldia pieza gehiagorekin osatuko dute. Besteak beste, El mesias, Trentxikitik barrena, Xalbadorren heriotzean edota Leizaran euskal fantasia.

Kontzertua 20:00tan hasiko da, baina lehenago Gora Kaletxiki Banda kalejiran ibiliko da. Goikoplazatik abiatuko dira, 19:30ean hasita.



Jose Luis Fernandez "Fitero".



Paco Bidasoro.



Paco Perez.



AIURRI

Gazte Asteko sari banaketa ekitaldia

Asier Peñalvo izan da 2019ko Gazte Asteko kartel lehiaketako irabazlea, eta bigarren Unai Marquez sailkatu da. 10-12 urte bitarteko kartel lehiaketan, lehen saria Aroa Pulponek jaso zuen. Bigarren saria, berriz,

Olibia Montejorentzat izan zen. Mundu zabaleko txokoak gomendatzeko 'Gomendatzen dizut' lehiaketan, berriz, Malen Ariztimuño izan zen garailea. Sari banaketa ekitaldia Gazte Lokalean bertan egin zuten.





Ikasleak Sorabillako Eko Rec-en. AIURRI

## Kontzientzia areagotzeko kanpaina Andoainen

#IzanAldaketa egitasmoa ostegun honetan gauzatuko dute, egun osoko jardueren bidez

### Erredakzioa ANDOAIN

Planetak dituen erronka nagusiei aurre egiteko #IzanAldaketa izeneko egitasmoa abiarazi dute. Ekomodo enpresak egun osoko jarduerak antolatu ditu Andoainen, ostegun honetarako. Egitasmoa aurrera eramateko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan ari dira. Erronka nagusien artean biri heldu diote: aldaketa klimatikoari eta plastikozko zaborrari. 10:00etatik 12:00tara zabor bilketa egingo dute, Oria ibaiaren inguruetan. Ikasleak bidelagun izango dituzte.

18:30etik 20:00tara, bestalde, kontzientziazio jardunaldi irekia egingo dute Basteron.



Ramon Elorz, Beterri Errotuz laneratze enpresako koordinatzailea; Olatz Mitxelena, Gipuzkoako Sagardogile elkartearen zuzendaria; Unai Agirre, Euskal Sagardoa Federazioko zuzendaria; Xabier Urdangarin, Astigarragako alkatea; Marijose Izagirre, Beterri-Buruntzako lehendakaria; eta Mikel Pagola, San Marko Mankomunitateko lehendakaria. AIURRI

# Sagardo botilak berrerabiltzeko kanpaina

Europako hondakinen prebentzio astearrekin bat eginez, sagardo botilen berrerabilpena gauzatzeko ekimen berritzailea aurkeztu dute Beterri-Buruntzan. Sagardo botilak birziklatzeko aukera zabalik dago eskualdeko garbiguneetan

### Erredakzioa ASTIGARRAGA

Astigarragako alkate Xabier Urdangarinak harrera egin zien herrira hurbildu zitzaizkion ordezkariak: "Helburu konpartitua dugu hemen gauden guztiok. Funtsean, sagardo botilen berrerabilpena gauzatu nahi dugu

baina horretarako berrerabilpen zerbitzu bideragarri, jasagarri, sozial eta ekonomikoa lortu behar da. Beterri-Buruntza *Sagardoren lurraldea* izanik, sektorea indartzeko erakunde publiko eta pribatuek elkar hartuta egin behar dugu lan".

### Marijose Izagirre, Beterri-Buruntzako lehendakaria

"Beterri-Buruntza eskualdean 1.842.553 botila ekoizten dira urtero, eta botila horien %22 ez dira itzultzen. Berrerabilpen sistematik kanpo geratzen dira, beraz".

Ekimenaren balio erantsia azpimarratu nahi izan zuen: "Proiektuak bere alor soziala du, jarduera bera Beterri-Errotuz laneratze enpresaren bidez burutzen baita. Honela, lan mundura txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonen edo baztertzeko arriskuan daudenei lan mundura sartzea erraztuko diegu".

### Olatz Mitxelena, Gipuzkoako Sagardogileen elkarte

"Ezinbestekoa iruditu zitzaigun sektoreak ekonomia zirkularrean parte hartzea, geuk ere gure aldetik prozesu horien inguruan gehiago ikasten hasteko asmoz. Egia da etorkizunera begira proiektuaren bideragarritasuna bermatu beharko dela, baina ziurra dena da beharrezkoa dela berrerabilpenaren inguruan hausnartzea".

### Unai Agirre, Euskal Sagardoa Federazioko zuzendaria

"Proiektu-pilotu bezala oso interesgarria iruditzen zaigu, batak bat etorkizunean har dezakeen dimentsioagatik. Gaur egun sagardo botila neurri apalago batean berrerabiltzen da, baina denen artean, administrazioa eta sektorea batera, kopuru handiagoak berrerabili, jasagarri egin eta sektoreko pertsonen berrerabilpena erraztea lor daiteke. Etorkizunean sagardo botilak berrerabiltzeko planta bat egitea bikaina izango litzateke gaur egun dauden zailtasunak gaitzitu eta berrerabilpena errazteko".

Herritarrek ekimenarekin bat egin dezakete, erabilitako sagardo botilak sagardotegietara edota Andoaingo nahiz Buruntzaldeko Garbiguneetara eramanez.

## Trukegunea egitasmoa Andoainera iritsi da

Gipuzkoako hainbat udalerriekin batera, jostailuen trukaketa sustatzea helburu dute

### Erredakzioa ANDOAIN

Europako Hondakinen prebentzioaren Astea, Trukegunea Sarea aurkeztu dute. Hitz gutxitan, kontsumo arduratsuan eta birziklapenean oinarritutako esperientzia da. Trukegune ho-

netan, objektuak era librean utzi eta jaso daitezke, tarteko ordainketarik gabe. Kanpaina zabalik dago urtarilaren 7ra arte, eta jostailuak Andoaingo Allurralde kiroldegian eta Arrate pilotalekuan hartu eta jaso daitezke.

Egitasmoarekin bat egin dute, besteak beste, Hernaniko Ekoguneak eta Andoain edota Amasa-Villabonako udalerriek.

Agerraldian Marijose Izagirre Andoaingo alkate-ordeak honako adierazi zuen: "Haurrek eta gazteek ez dezatela buruan eduki soilik jostailu berriarekin jolastea. Beste norbaitek egoera onean utzitako jostailuarekin ere berdin-berdin aritu daitezke".

Liburuak, musika, jostailuak, apaingarriak, musika tresnak, trukearako aukera asko dago



Kanpaina aurkezteko agerraldia egin zuten, Amasa-Villabonan. AIURRI